





BIZINTEK INNOVA S.L.:

Bizintek : Negozio-ereduan eskalatzen eta integraltasuna bultzatzen, tropikalizatuari esker



Raquel Vidal Rodriguez
r.vidal@bizintekinnova.com
944372606

<https://bizintek.es/nueva-linea-de-tropicalizado-de-bizintek/>

-
-  **Jarduera:** Ziklo osoko ingeniari-tza integrala: ideia, diseinua, elektronik-a, mekanika, prototipoak, industrializazioa eta fabrikazioa, logistika eta after market zerbitzua.
 -  **Sektorea:** Ingeniaritza elektronikoaren zerbitzuak ematea eta fabrikazioa
 -  **Enplegatutako pertsonen kopurua:** 42
 -  **Lokalizazioa:** Camino Tellaetxe S/N 9A, 48015, Bilbao - Bilbo, Bizkaia

EUSKADI mailako berrikuntza ERRADIKALA**Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?**

Aldaketa bat dakarrelako Bizintek ingeniartzaren negozio-ereduan, produktu propioa izateko aukera ematen baitio, bere bezeroei soluzio integral bat eskainiz, bere ekoizpen-katean akabera-teknika berritzaile bat txertatuz, tropikalizatua. Ingeniartzaren, ekoizpenaren eta euskarri teknikoaren arteko lotura eraginkorra, Bizintek ezaugarria zena, indartu egiten da teknologia hori sartzearekin; izan ere, kalitate maila altuak bermatzeaz gain, Bizintek bere lehiakideekiko posizio abantailatsuan jartzen du.

KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

Bizintek produktu elektroniko berritzaileak garatzen ditu sektore askotarako (sektore industriala, elektromedikoa, energetikoa, automozioa, teknologikoa, etab.), prozesu osoa barne hartuz: ideia, diseinua, elektronika, mekanika, prototipatua, industrializazioa eta saldu osteko zerbitzua.

Produktio-eremuan, SMD (Surface Mounted Device) linea abian jarri ondoren, Bizintek helburu estrategiko gisa planteatzen du produktuen industrializazioaren kontrol integrala eramatea, bezeroei kalitate-maila optimoak bermatu ahal izateko. Ikuspegi estrategiko hori bat dator merkatu-bezeroen gero eta behar handiagoekin, hala nola industria aeronautikoarekin edo automobilgintzarekin, kalitate-arau oso zorrotzei lotuta. Horretaz guztiaz jabetuta, Bizintek erabaki du bernizazio-tratamendu berritzaile bat txertatzea bere produktio-zikloan, tropikalizazio-zerbitzua, osagai elektronikoak agente korrosibo ugari dituzten giro oldarkorretatik babesteko eta, horrela, haien eraginkortasuna eta iraunkortasuna handitzeko.

Bizintek-en ustez, estropikalizazio-lerroa bere produktio-zikloan integratzearen abantaila nagusia kalitatearen gaineko erabateko kontrola egin ahal izatea da, eta ez hirugarrenen arabera prozesu osoa osatzeko. Kalitaterik handiena bezeroentzako sine qua non baldintza izanik, Bizintek tropikalizazio-prozesuarekin produktu elektronikoaren gaineko kontrola handitu du, eta, horretarako, zuzenean egin ditu dagozkion test, egiaztapen eta kalitate-kontrolak, errore-marjinak nabarmen murriztuz.

Bezeroarentzat, prozesu osoa ekoizpen-planta berean osatu ahal izatea da abantaila nagusia, eta horrek balio erantsia dakar, ez bakarrik kalitate-maila altuak bermatzen direlako, baizik eta prozesu osoa osorik kudeatzeko solaskide bakar baten mende dagoelako.

Bernizazio-linea berri hau martxan jartzeko, Bizintek, alde batetik, bezero diren enpresen laguntza izan du, zeinek beren bezero-sektoreetan baldintza teknikoak eta kalitate-estandarrak finkatu baitituzte, eta, bestetik, instalatutako makinaren fabrikatzaileen know-how-a, instalatu beharreko produktio-linearen ezaugarri teknikoak zehaztu dituztenak.

Erabilitako baliabideei dagokienez, proiektuaren aurrekontu zenbatetsia 200.000 €-koa izan da, eta bi pertsona kontratatu dira, zehazki, tropikalizazio-prozesuari erantzuteko.

Aurrekariak

Bizintek 2005ean ekin zion bere ibilbideari, produktu elektronikoaren diseinu eta ingeniartzara zerbitzuak eskainiz. 2016an, produktu elektronikoa diseinatzeko eta garatzeko jardura zabaldu zuen, produktioa bere zerbitzu-zorroari gehituz. Hala ere, eta kontuan hartuta enpresaren helburua beti izan dela kalitate gorena lortzea, premisa hori kolokan zegoen industrializazio-prozesuaren zati bat hirugarren batzuei eskuordetzean. Horregatik erabaki da tropikalizatua fabrikazio-ziklo osoan integratzea.

Erronka

Erronka nagusia izan da tropikalizazio-prozesuak eskatzen dituen kalitate-estandar altuei erantzungo dien talde bat osatzea. Lehenengo eta behin, aurre-ikaskuntzako prozesu bat egin behar izan da (kalitate-estandarrak ikertzea, zehaztapenak egitea eta Bizintek estandar horiek betetzeko aukera ematea), eta bigarren bat, berriz, ikaskuntza-ondoko estandar bat (akats-arrisku handiena duten zereginak identifikatzea). Ildo berri hori denbora errekorrean finkatzea izan da erronka erantsia, bideragarritasuna hasiera-hasieratik bilatuz.

Ekintzak

Ildo berria ezartzeko erabilitako metodologia honako hau izan da:

1. 2019an, produktu elektronikoek orain dituzten eta etorkizunean izan ditzaketen kalitate-estandarrak aztertzea eta Bizintek bezero estrategikoek esparru horretan dituzten beharrak identifikatzea. Bi aldagai horien konbinazioak Bizintek ezarri beharreko tropikalizazio-lerroaren ezaugarriak eta zehaztapenak zehazten ditu.
2. Produktio-prozesuaren ezaugarri teknikoak aztertzearekin batera, bideragarritasun, arrisku ekonomiko eta inbertsioaren itzulerako plan bat egiten da, proiektuaren iraunkortasuna ziurtatzeko.
3. 2020ko lehen hilabeteetan, nahi den tropikalizazio-teknikara egokitzen diren zehaztapen teknikoak dituzten makineriaren hautaketa, eta fabrikaren eta SMDren linea independente berri horren egokitzapena. Gainera, eremu espezifiko bat egokitu behar da (berniz toxikoak direnez, aireztapen-sistema independentea duen kristalezko zona bat behar da).

4. Profil tekniko handia eta lantaldearen gaikuntza duten bi pertsona kontratatzea, 6 hilabeteko iraupenarekin.
5. Serie laburrak probatu eta baliozkotzea, makineriaren fabrikatzaileekin eta Bizinteko bezeroekin lankidetzan.
6. 2020aren amaieran, tropikalizazio-lerro berri hori Bizinteken produkzio-katean txertatzen da.
7. Azkenik, testing, egiaztapen eta kontrol prozesu berrien diseinuak egiten dira, produktu tropikalizatuaren kalitatea bermatzeko.

Lortutako emaitzak

- Emaitza nagusia hornitzaile integral bihurtzea izan da, bezeroek asko baloratzen duten profila, eta Bizitenkek merkatuan posizionamendu hobea lortzea ahalbidetzen du, lehia txikiarekin.
- Fabrikatutako produktuen % 60k tropikalizatu dute, eta hazteko ahalmen handia.
- Bezero berriak erakartzea eta, batez ere, sektore estrategikoetako bezeroen zorroa sendotzea Bizintekentzat (lehen ingeniartzako bezeroak baino ez ziren).
- Tropikalizazio-linea abian jartzeak fakturazioa % 20 handitzea ahalbidetu du, ez soilik zuzeneko salmentagatik, baita bezero-zorroan izan duen trakzio-efektuagatik ere.
- 2 pertsona espezializatu sartu dira tropikalizazio-prozesuari erantzuteko.
- Zerbitzu berriarekiko bezeroaren asebetetze-maila 10 puntutik 9,6koa da.

KASUAREN KATEGORIZAZIOA

Berrikuntza-eremuak:

- Produktua: Zerbitzuak.
- Negozio-eredua:

Aukera arloak:

- 1 - Eraldaketa teknologikoa/digitala

Daniel del Rio (Bizintek Innova-ko sortzaile eta zuzendaria)

«Tropikalizazio-lerro berria sartzeak aukera eman digu ingurumen-babes handia duten ekoizpen-bolumen handiak behar dituzten proiektu berrietara iristeko, hala nola energia berriztagarriak, segurtasuna eta kontagailuen teleirakurketa».

Imanol García (Bizintek Innova-ko zuzendari komertziala)

«Linea berri honi esker, beste urrats bat eman dugu gure produkzio-bezeroei zerbitzu integrala eskaini ahal izateko». Gure SMD eta THT muntaia elektronikoko, testatzeko, muntaia mekaniko serializatuko eta packaging zerbitzuak osatuz, coating lineak bezero gehiagorengana iristeko eta modu integralean zerbitzatzeko aukera ematen digu.

Innovation Index Score: ★★☆☆☆

Lerrokatze estrategikoa: ★★☆☆☆

Kreatibitatea: ★☆☆☆☆

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★☆☆☆

Sistematizazioa: ★☆☆☆☆

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★☆☆☆

Efizientzia emaitzetan: ★★☆☆☆

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★☆☆☆

★

Eragina: ★★☆☆☆

Aintzatespena: ★★☆☆☆